

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

2020an Vitoria-Gasteizko udalerriko ostalaritzari aparteko laguntzak emateko udal programaren deialdi publikoa eta berariazko oinarri arautzaileak

2019ko abenduaren 9an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzen deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak. 2019ko abenduaren 23ko ALHAOn — 147. zk. — argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke — www.vitoria-gasteiz.org —, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berariazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2020ko azaroaren 27an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020an Vitoria-Gasteizko udalerriko ostalaritzaren sektoreko enpresei aparteko laguntzak emateko udal programaren deialdi publikoa eta berariazko oinarri arautzaileak. Horrenbestez, oinarri horiek argitara ematen dira, denak jakinaren gainean egon daitezten:

1. oinarria. Dirulaguntzen ildoak

Lehendakariaren azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuak — zeinaren bidez honako dekretu hau aldatzen baita: 36/2020 Dekretua, urriaren 26koa, lehendakariarena, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko — eragindako Vitoria-Gasteizko ostalaritzaren sektoreko enpresentzako aparteko laguntzak.

2. oinarria. Deialdiaren xedea

Hauxe da oinarri hauen xedea: Vitoria-Gasteizko udalerriko ostalaritza-sektorea babestea eta hari laguntza ekonomikoa ematea, lehia-erregimen sinplean, Lehendakariaren 38/2020 Dekretuaren ondorioz jarduerak eten dituzten ostalaritza-sektoreko enpresentzako aparteko laguntzen bitartez. Dekretu horren bitartez ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuen erabateko itxiera ezartzen zen, hoteletako eta ostatu hartuta dauden bezeroen zerbitzurako jantokietan izan ezik.

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak izango dira laguntza ekonomikoko horiek.

3. oinarria. Enpresa eta pertsona onuradunen betebeharrak

Merkataritza-jardueraren bat duten enpresa pribatuak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, beren izaera juridikoa edozein delarik ere, betekizun hauek betetzen badituzte:

1. Ostalaritza-jarduera Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatutako —menpeko toki erakundeak barne— lokal batean gauzatzea. Ez da beharrezkoa izango eskabidea egiten duten pertsona edo entitateek helbidea Vitoria-Gasteizko udalerrian edukitzea.

2. Enpresa txikia izateko bete beharreko betekizunak betetzea 2020ko urriaren 25ean (50 soldatapeko baino gutxiago, eta 10 milioi eurotik beherako negozio-bolumena edo balantze orokorra, urtean).

3. Aurreko baldintzak betetzen ez dituzten enpresei lotuak ez egotea, eta halakoek ehuneko 25etik gorako partaidetza ez edukitzea bertan.

4. Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafe hauetakoren batean alta emanda egotea: 671, 672 eta 673: Elikadura zerbitzua, jatetxe, kafetegi eta tabernetan.

676. Elikadura zerbitzua txokolategi, izozki-denda eta hortxata-dendetan.

969.1 Dantzaleku eta diskotekak.

Berariaz geratuko dira laguntzetatik kanpo jarduera nagusizat etxez etxeko janari banaketa, eramateko janari zerbitzua, edo ekitaldiatarako janari prestatuak hornitzea duten enpresak.

Betebehar hori ofizios egiaztatuko du Vitoria-Gasteizko Udalak.

5. Enpresek alta emanda egon beharko dute aurreko puntuan adierazitako Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafeetan, 2020ko urriaren 25ean, eta beren jarduerari eutsi beharko diote lau hilabetez, ostalaritza-establezimenduak ixteko dekretuaren eraginak bukatzen diren egunetik kontatuta.

Aurreko paragrafoan aipatutako epean ostalaritza-establezimenduak ixteko legezko betebeharra ezartzen bada, establezimendua irekitzen denetik berriz itxi behar izatera arteko denborara mugatuko da gutxieneko epea.

Betebehar hori ofizios egiaztatuko du Vitoria-Gasteizko Udalak.

6. Ondasun-erkidegoen edo elkarte zibilen kasuan, horietan partaidetza duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Nolanahi ere, taldea ordezkatzeko duen pertsona bat izendatu beharko da, onuradun den aldetik hari dagozkion betebeharrak betetzeko nahikoa ahalmen aitortzen zaiolarik. Emandako dirulaguntza itzuli egin beharko da, elkarte Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea baino lehen desegiten bada.

7. Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntza-eskabidea tramitzeko prozesu osoan ere bete beharko da betebehar hori — dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean —.

8. Nolanahi ere, baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenak ere (elkartek, lanbide elkargoak eta abar).

9. Administrazio-bidean edo bide penalean zigortua eta laguntza publikoak eskuratzeko aukeratik apartatua ez egotea, ezta horretarako ezgaitzen duen inongo legezko debekuren menpe ere, Gizon eta Emakumeen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakume eta gizonen arteko benetako berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-arrazoiengatik diskriminaziotzat jotzen diren egintzen ondorio direnak barne.

10. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluen 2. eta 3. ataletan jasotako gainerako debekuetako batean ere ez egotea, dirulaguntzen onuradun izan ahal izateko.

4. oinarria. Aurrekontu-zuzkidura eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Oinarri hauetan zehaztutako ekintzetarako aurrekontua 500.000,00 eurokoa izango da, guztira.

Vitoria-Gasteizko Udalak 600,00 euroko dirulaguntza emango dio enpresa eskatzaileari diruz lagundu daitekeen jarduera gauzatzen duen lokal bakoitzeko, indarrean dagoen aurrekontuaren 2020/0823.4331.489.00 partidaren kontura.

Ofizios egiaztatuko da enpresak diruz lagundu daitekeen jarduera gauzatzen duen lokalen kopurua, 3. oinarrian adierazitakoaren ildotik.

Oinarri hauetan aurreikusitako ondorioetarako, diruz lagundu daitekeen jarduera gauzatzen deneko negozio-unitate independentea hartuko da lokaltzat.

5. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek —aldez aurretik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen laburpen-iragarkia argitaratuko da—.

Bi epe ezarri dira eskabideak aurkezteko:

— Lehena, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eta 2020ko abenduaren 18an bukatuko (1. tarte).

— Aurrekontu-partida agortzen ez bada, Udalaren webgunean emango da horren berri, dirulaguntza lortu ez duten enpresa interesdunek dirulaguntza-eskabidea aurkeztu ahal izan dezaten urtarrilaren 14tik martxoaren 1era bitartean (2. tarte). Hori guztia, 2021eko ekitaldian kreditu egokia eta nahikoa izatearen baldintzapean egongo da.

Enpresak eskabide bakar bat egin beharko du, jarduera gauzatzen duen lokalen kopurua edozein delarik ere. Enpresa bakoitzeko dossier bakarra tramitatuko da.

I. eranskineko eskabide-eredua baliatuz aurkeztu beharko dute eskabidea interesatuta dauden enpresek, San Martineko udal eraikineko herritarrei laguntzeko bulegoan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, z/g—, aldez aurretik hitzordua eskatu gabe, edo Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa — <https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org>—. Orobat aurkeztu ahal izango dute legez aurreikusitako gainerako moduetan, Administrazio Publikoen Administrazio Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen ildotik.

Eskabidea postaz bidaltzen bada, mezu elektronikoa bat igorri beharko da, bidalketaren ordezkagiriarekin, helbide honetara: comercio@vitoria-gasteiz.org.

Eskabideak epez kanpo aurkezten badira, ezetsi egingo dira.

6. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura

Dokumentazio osoa sarrera-erregistroan sartu den hurrenkerari jarraituko zaio laguntzak emateko (eguna, hilabetea, ordua eta minutuak), 4. oinarrian adierazitako aurrekontu-mugara iritsi arte.

Aurkezten direnako data eta ordua kontuan harturik erantzungo zaie eskabideei, baldin eta akatsen bat zuzentzeko eskatu beharrik ez badago. Akatsen bat zuzendu behar izanez gero, berri, eskabidea balioudun izan dadin beharrezko diren agiri osagarriak aurkezten direnako eguna eta ordua hartuko dira kontuan, eta, edonola ere, deialdirako erabilgarri dagoen kredituaren mugara arte.

Laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatuz gero, hori emateko ebazpena aldatzea ekar lezake horrek berekin.

Tokiko Gobernu Batzarra da laguntza hauek emateko organo eskuduna, eskumen hori Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari eskuordetzeko aukera gorabehera.

7. oinarria. Ebatzi eta jakinarazteko epea

Gehenez sei hilabeteko epean ebatziko da prozedura, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik. Epe hori berriazko ebazpenik eman gabe igaroz gero, dirulaguntza eskuratzeko eskabidea ezetsizat joko da.

Aurkezten diren hurrenkeran tramitatu eta ebatziko dira dirulaguntza-eskabideak, ezarritako betekizunak betetzen direlarik; beti ere, eskabidea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa osorik daudelarik.

Nolanahi ere, dirulaguntzak emateko ebazpena baldintzatuta egongo da, kreditu egokia eta nahikoa dagoen ere.

ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren iragarki-taularen bidez egingo dira dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenaren jakinarazpenak, betiere Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraituz.

Dirulaguntzak emateko nahiz ezesteko erabakiak administrazio-bidea agortuko du, eta horren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organoari zuzenduta, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik; horren berriazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

8. oinarria. Ordaintzeko modua

Dena batera ordainduko da laguntza, 5. oinarrian zehaztu diren laguntzak eskatzeko aldiako bakoitzari dagokion ebazpena eman ondoren. Guztia ere, gerora egin litezkeen ikuskatze- eta egiaztapen-jarduerak gorabehera.

Dirulaguntza onartutzat joko da baldin ematen deneko ebazpena argitaratzen denetik hamar eguneko epea igarotzen delarik berriazko uko egin ez bazaio.

9. oinarria. Dirulaguntza justifikatzea

Oinarri hauetan galdatzen den dokumentazio guztia aurkezten delarik joko da justifikatutzat dirulaguntza, eta xedea betetzen dela, eta, horrenbestez, dirulaguntza ematea ebazten delarik, hura onuradunari ordaintzeko tramitazioa egingo da. Edonola ere, prozedura horren organo instrukzio-egileak onuradunari eskatzen dizkien egiaztagirak oro dirulaguntzaren eskatzaileak emandako helbide elektronikoaren bitartez igorri beharko dira.

Ordainketa bakarrean emango zaio dirulaguntza onuradunari, hura ematea ebazten delarik, eta galdatzen diren betebeharrak betetzen direla egiaztatu ondoren.

Ezingo da dirulaguntza ordaindu harik eta onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gize Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, edo Vitoria-Gasteizko Udalaren zordun bada, zor iraungi, likido eta galdagarriak direla eta.

10. oinarria. Enpresa onuradunen betebeharrak

Laguntza jasotzen duten enpresek betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Udalaren egiaztatze-ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu-hartzailletza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.

14. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Deialdi hau dela-eta egiten diren jarduketak gauzatzean, une oro beteko da datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen legedian xedatutakoa.

15. oinarria. Arau-hausteak eta zigorrak

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 59. artikulutik 69.era bitartekoetan eta Vitoria-Gasteizko Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren —2005eko ekainaren 17an onetsia; 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAO, 5. zk.— 28. artikulutik 41.era bitartekoetan ezarritakora egokituko da arau-hauste eta zigorren erregimena.

16. oinarria. Ez betetzea, baliogabetzea eta laguntzak itzultzea

Dirulaguntza emateko ebazpena baliogabetu ahal izango da, eta osorik nahiz zati bat itzultzeko eskatu, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 36. eta 37. artikuluetan eta aplikatzekoak diren gainerako arau orokorretan adierazten diren kasuetan, baita arau hauetan jasotzen diren betebeharrak betetzen ez badira ere.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen II. tituluko II. kapituluan ezarritakora egokituko da itzultzeko prozedura. Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariek emango du dirulaguntza itzultzea erabakitzen deneko ebazpena.

Behar ez bezala jasotako funts publikoez gainera, dirulaguntza ordaintzen den egunetik eta hura itzuli beharra dagoela erabakitzen den unera arteko aldiari dagozkion berandutze-interesak galdatuko dira. Emandako dirulaguntzatik itzuli beharreko kopuruaren gainean kalkulatu da galdatu beharreko interesa.

Zuzenbide publikoko sarreratzat joko dira itzuli beharreko zenbatekoak, eta halako diru-sarrerari dagokienez Vitoria-Gasteizko Udalaren Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrerara lokalak kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorrean xedatutakoaren arabera kobratuko dira.

Baldin eta erreklamaturako zenbatekoak ez bazaizkio itzultzen Vitoria-Gasteizko Udalari borondatezko aldiari, premiamendu-bideari ekingo zaio, kobratzeko, indarrean dagoen araudiaren ildotik.

17. oinarria. Aplikatzekoa den araudia

Deialdi honetan ezarritako prozedura Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko abenduaren 9an onetsitako oinarri orokorretan ezarritakoaren mende dago —2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 174. zk.—, beti ere Dirulaguntzen Lege Orokorrean, haren araudian, Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren —2005eko ekainaren 17an onetsia; 2006ko urtarrilaren 13ko ALHAO, 5. zk.— eta deialdiaren oinarri orokorretan ezarritakoaren kontrakoa ez bada.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroaren 27an

Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Orokorreko teknikaria
IGNACIO CEPEDA CRESPO

I. eranskina: Laguntza-eskabidea eta erantzukizunpeko adierazpena

<https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/03/81/90381.pdf>